

# Franz Kafka



erein

# Metamorfosis

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROa (Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.conlicencia.com](http://www.conlicencia.com); 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

*1. argitalpena: 2016ko otsailan*

Jatorrizko izenburua:

*Die Verwandlung*

Azalaren irudia:

Iván Landa

Maketazioa:

Erein

© Itzulpenarena:

Anton Garikano

© EREIN. Donostia 2016

ISBN: 978-84-9109-080-9

L. G.: SS-237/2016

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: [erein@erein.eus](mailto:erein@erein.eus)

[www.erein.eus](http://www.erein.eus)

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: [edizioak@itxaropena.net](mailto:edizioak@itxaropena.net)

[www.itxaropena.net](http://www.itxaropena.net)

Franz Kafka

# Metamorfosia

Itzultzailea  
Anton Garikano

erein

# I

Goiz batean, Gregor Samsa amets nahasiak izanda esnatu zenean, zomorro beldurgarri bat bihurturik aurkitu zuen ohean bere burua. Oskol antzeko bizkar gogorraren gainean zegoen, eta burua pixka bat jasoz ikusi zuen bere sabel konkor marroia, uzta formako gogortasunekin, eta ohearen tapakia, noiznahi erortzeko zorian, ez zen hura estaltzeko gai. Bere zango ugariak, gainerako gorputzaren aldean mehe-meheak, errukarri astintzen ikusi zituen.

“Zer gertatu zait?”, pentsatu zuen.

Ez zen ametsa. Bere gela, gizaki batentzako gela egokia –txikitxo, baina–, bakean zegoen betiko lau hormen artean. Oihal-laginen bilduma bat

zegoen mahaiaren gainean zabaldua –Samsa saltzaile bidaiaria baitzen–, eta haren gainean zegoen, zintzilik, aldizkari batetik moztu eta marko urreztatu eder batean ipini berri zuen irudia. Anderefño bat agertzen zen bertan, kapela eta boa batekin, biak larruzkoak, bizkarra zuzen zuela eserita, eta ikuslearengana zuzenduta zeukan besaurre osoa larruzko mahuka astun baten barruan ezkutatuturik.

Gregorrek leihorantz begiratu zuen, eta tristura handia eman zion eguraldi goibelak: euriak hotsarekin jotzen zuen leihoaren metalezko ertza.

“Lo gehixeago egin eta zorakeriak ahaztea onena”, pentsatu zuen, baina hori guztiz ezinezkoa zen, eskuineko aldearen gainean lo egiten baitzegoen ohituta, eta, egoera hartan, ez zen gauza. Indar eginez bere burua eskuinaldera bota arren, behin eta berriro itzultzen zen bizkar gainera. Ehun aldiz saiatu, begiak itxi –zangoen astinduak ikusi beharrik ez izateko–, eta ez zuen etsi eskuineko aldean minsor ezezagun bat sentitzen hasi zen arte.

“Ai ene –pentsatu zuen–, lanbide latza hautatu dut! Egunero-egunero, hara eta hona. Negozioak askoz neketsuagoak dira lantokian bertan arituta

baino, eta horrekin nahikoa ez eta hor dago bi-  
daiatu beharraren madarikazioa, tren-loturen  
kezka, otordu txar, gorabeheratsuak, jendearekiko  
harreman beti aldakorra, iraungaitza, inoiz sa-  
kontzen ez dena. Hor konpon denak!”. Azkura  
arin bat nabaritu zuen sabelaren goiko aldean;  
ohebururantz astiro arrastatu zuen bizkarra, burua  
hobeto jaso ahal izateko; azkuraren lekua aurkitu  
zuen, orban zuri, txikiz betea, eta ezin izan zien  
tankerarik eman; zango bat hara hurbildu nahi  
baina berehala baztertu zuen, ukitze hutsarekin  
hotzikaraz jota.

Berriro jarri zen lehen bezala.

“Goiz jaikitzeak –pentsatu zuen– ergeldu egi-  
ten zaitu. Pertsonak loa behar du. Beste saltzaile bi-  
daiari batzuk harem bateko emakumeak bezala  
bizi dira. Adibidez, goizean zehar ostatura itzultzen  
naizenean, lortutako eskaerak idazteko, jaun horiek  
gosaltzen aritzen dira artean. Gauza bera egin be-  
harko nuke nire ugazabarekin: berehala kaleratuko  
ninduke. Ez dakit onena horixe ez ote nukeen. Gu-  
rasoengatik ez balitz, aspaldi emango nukeen di-  
misioa, ugazabarengana joan eta bene-benetan zer  
pentsatzen dudan esango niokeen. Laneko mahai-  
tik behera eroriko litzateke! Bitxia da, gero, laneko

mahaian eserita egon eta han goitik hitz egitea langileei, bestela ere ondo-ondoraino joan behar izan duzunean, ugazabaren gorrieriarengatik. Dena dela, oraindik ez dut guztiz etsi: gurasoek zor dioten dirua biltzen dudanean –beste bospasei urte–, horixe egingo dut. Zirt-zart. Orain jaiki beharra daukat baina, bostetan dut trena eta”.

Eta komodaren gainean tiki-taka ari zen ordulariari begiratu zion.

“Jainkoaren izenean!”, pentsatu zuen.

Sei eta erdiak ziren eta orratzak aurrera zihozten astiro, erdiak pasatxo ziren, laster laurden gutxi. Ez ote zuen jo? Lauretan jarri zuela ikusi zuen ohetik; jo zuen, noski. Baina posible al zen altzariak dardararazten zituen zarata harekin lasai lo jarraitzea? Tira, ez zuen lo lasaia izan, baina sakona bai, nonbait. Eta zer egin orain? Zazpitan zuen hurrengo trena; hura hartzekotan, eroaren moduan ibili beharko zuen presaka, bilduma jasotzeke zegoen, eta bera ere ez zen sentitzen batere fresko eta arin. Eta, trena hartuta ere, ez zen libratuko ugazabaren errietatik, ez zela azaldu esana izango baitzion bulegoko laguntzaileak, bostetako trenaren zain egon eta gero. Buruzagiaren morroi bat zen, kemenik eta zentzurik gabekoa.

Eta gaixo zegoela esanez deitzea? Baina hori lotsagarria eta susmagarria litzateke, Gregor ez baitzen behin ere gaixotu lanean zeraman bost urtean. Ugazaba aseguruko medikuarekin etorri, gurasoei seme nagia zutela aurpegiratu, eta erreklamazio guztiak bertan behera utziko zituen aseguruko medikuaren esanari jarraituz, haren ustez gaixoak ez baizik lanerako alferrak baitzeuden. Eta kasu honetan ez ote zuen arrazoi? Izan ere Gregor, halako loaldi luzearen ondorengo logura ikusgarri hura kenduta, zoragarri sentitzen baitzen, baita goseak ere.

Hartan guztian korrika eta presaka pentsatzen ari zela, ohetik ateratzea erabaki ezinik –zazpiak laurden gutxi ziren orduantxe–, oheburuaren ondoko atea jo zuten, isilki.

–Gregor –entzun zen amaren ahotsa–, zazpiak laurden gutxi dira. Ez al zinen joatekoa?

Bai ahots ezia! Gregor beldurtu egin zen bere erantzuneko ahotsa entzutean, ordura artekoaren aldean ezezaguna. Bazirudien barru-barruko txilio mingarri eutsiezin bat zuela nahasita, hitzak hasieran argi ebaki bai, baina haien oihartzuna okertu egiten zela, entzundakoaz zalantzak sortzeraino. Gregorrek luze eta zabal erantzun eta argitu nahi

izan zuen dena, baina, egoera hartan, honako hau esatera mugatu zen:

–Bai, bai, ama. Jaikitzen ari naiz.

Zurezko ate harekin ezin zitzaion igarri Gregorren ahots aldatuari, amak azalpen hura ontzat jo eta zirrin-zarran joan baitzen. Baina, hizketaldi labur haren bidez, familiako gainerako kideak ere Gregor etxean zegoela ohartu ziren –ez zuten espero, baina–, eta alboko ate batean jo zuen aitak, ahul baina ukabilaz.

–Gregor, Gregor –hots egin zuen–, zer duzu?

Eta handik gutxira deitu zuen berriro, ozenago:

–Gregor! Gregor!

Alboko beste atetik kexatu zen arreba, emeki:

–Gregor? Ondoezik zaude? Zerbait behar duzu?

Gregorrek alde biei erantzun zien:

–Prest nago.

Ahotsa nabarmena ez izaten saiatu zen, hitzak arretaz ebakiz eta haien arteko etenaldi luzeak eginenez. Aita gosaritara itzuli zen, baina arrebak xuxurlatu zuen:

–Gregor, zabaldu atea, arren.

Baina Gregorrek ez zuen pentsatzen zabaltea, eta poztu egin zen bere bidaietan hartutako

ohiturarengatik, etxean ere gauzez ate guztiak giltzaz ixtekoa.

Hasteko, lasai eta enbarazurik gabe jaiki nahi zuen, jantzi eta, batez ere, gosaldu. Ondoren hausnartuko zuen zer egin, argi baitzegoen ohean pentsatzen egonda ez zela zentzuzko ondorio batera helduko. Lehenago ere sarritan nabaritu izan zuen minsor bat ohean, agian gaizki etzanda egoteagatik, baina jaikitakoan irudipen hutsa bihurtu izan zen, eta oraingo sentipenak zertan geratuko ziren ikusteko gogoz zegoen. Inolako zalantzarik gabe, ahots-aldaketa hura ez zen burutik beherako txar baten seinalea baino, saltzaile bidaiarien ohiko gaitza.

Erraza izan zen tapakia botatzea; gorputza apur bat konkortu eta hura bere kabuz erori zen. Baina handik aurrerakoa zaila zen, batez ere Gregor hain zabala zelako. Besoak eta eskuak erabiliko zituzkeen bizkarra tentetzeko, baina, haien ordeztan, zango pila hura zeukan, etengabe batera eta bestera mugitzen, ezin menderaturik. Haietako bat tolestu nahi izanez gero, lehena zen luzatzen; eta zango harekin nahi zuena egitea lortu bitartean, beste guztiak beren aldetik mugitzen ziren, bizi-bizi eta mingarri.

“Ez nadin ohean alferkerian egon”, esan zuen Gregorrek berekiko.

Lehenbizi, gorputzaren beheko aldearekin irten nahi izan zuen ohetik, baina beheko alde hura ikusi gabe zeukan, ezin zuen irudikatu, eta mugitzeko zailegia zen; oso astiro joaten zen; eta, azkenean, amorruez indarrak bilduta, itsu-itsuan bere burua aurrera bultzatzean, norabidea gaizki aukeratu, ohearen beheko hanka gogor jo, eta nabaritu zuen, min garratzak erakutsi zionez, gorputzaren beheko alde huraxe zuela une hartan sentikorrena, agian.

Horregatik, lehenbizi gorputzaren goiko alde ateratzen saiatu zen, burua ohearen ertzera kontuz biratuta. Aise lortu zuen eta, zabalera eta pisua gorabehera, azkenean gorputzak astiro jarraitu zion buruaren bideari. Baina azkenean buruari ohetik kanpora airean eutsi zionean, beldurra eman zion hala narrasean jarraitzeak, gorputzari erortzen uzten bazion miraria izango baitzen burua ez zauritzea. Eta orain ezin zuen konortea galdu; ohean jarraitzea hobe.

Baina beste hainbeste ahalegindu ondoren lehen bezala jarri zenean, hasperenka, eta bere zangoak lehen baino are sutsuago ikusi zituenean

elkarren kontra borrokan, anabasa hartan bakea eta ordena jartzeko modurik gabe, berriro pentsatu zuen ezin zuela ohean jarraitu, eta dena sakrifika-tzea zela zentzuzkoena, itxaropen xume bat baino egon ez arren, eta ohetik libratzea. Aldi berean, baina, gogora ekarri zuen erabaki etsiak baino as-koz hobea zela gogoeta lasaia. Halakoetan, ahalik eta zorrotzen zuzentzen zituen begiak leihora, baina, zoritxarrez, konfiantza eta adore gutxi ema-ten zuen goiz-lainoak, kale meharraren beste aldea ere estaltzen baitzuen.

“Zazpiak dira eta! —esan zuen berekiko, ordu-lariak berriro jotzean—. Zazpiak eta oraindik laino!”.

Eta lasai etzanda egon zen pixka batean, arnasa bare, erabateko isiltasun harekin batera normalta-suna itzultzea espero balu bezala.

Orduan, baina, berekiko esan zuen: “Zazpiak eta laurden jo aurretik, ohetik kanpora egon behar dut. Izan ere, laneko norbait etorriko zait ordu-rako, nitaz galdezka, zazpiak aurretik hasten dire-nez”. Eta gorputz osoa luze-luze eta aldi berean ku-lunkatzeari ekin zion, ohetik ateratzeko. Bere burua ohetik kanpora botatzen bazuen modu har-tan, ustez ez zuen minik hartuko buruan, goian

eutsiko baitzion jausterakoan. Bizkarrak gogorra zirudien: ez zitzaion ezer gertatuko tapizaren gainera erorita. Zalantzarik handiena zaratak sortzen zion, beldurra ez bazen kezka behintzat eragingo baitzuen, seguru asko, ate guztien beste aldean. Baina arriskatu beharra zegoen.

Gregor ohetik irteteko erdibidean zela –metodo berriak jolasetik gehiago zuen neketik baino, atzerantz kulunkatzea besterik ez zen–, burura etorri zitzaion zein erraza izango zen norbait laguntzera etorritz gero. Bi lagun indartsu –aita eta neskamea etorri zitzaizkion burura– aski izango ziren; haiek beso bana bizkar txalkorraren azpian sartu, ohetik aterarazi, kargarekin makurtu eta arretaz itxaron Gregorrek bat egin arte lurrarekin, zangoak han zer-baitetan hasiko zirelakoan. Ate guztiak giltzatuta egon ez balira, laguntza eskatu beharko ote zuen? Horretan pentsatzean ezin izan zuen irribarre bat gorde, larritasun guztiak gorabehera.

Gehiago kulunkatuz gero, orekari eutsi ezin izateraino iritsi zen. Laster hartu beharko zuen azken erabakia, zazpiak eta laurden baitziren bost minutu barru. Hartan zegoela, etxeko atea jo zuten.

“Lantokiko norbait da”, esan zuen berekiko, geldi-geldi, zangoak are biziago dantzatzen ziren

bitartean. Une batez, dena isilik egon zen. “Inork ez du ireki”, pentsatu zuen, zentzugabeko itxaropenen batekin. Orduan, baina, neskamea beti bezala urrats sendoz aterantz joan eta zabaldu egin zuen. Gregorrek aski izan zuen bisitariaren lehen agur-hitza, nor zen jakiteko: arduraduna. Zergatik zegoen Gregor kondenatua lan egitera enpresa hartan, non akatsik txikiak susmorik handiena eragiten zuen? Enplegatu guzti-guztiak ote ziren alprojak, haien artean ez ote zegoen leialik inor, goizeko ordu pare bat lanari ez eskaintzearen harrak zorutzen zuenik eta ohetik ateratzeko gai ez zenik? Ez ote zen aski aprendiz bat bidaltzea galdetzera –norbait bidali beharra bazegoen galdetzera–, arduradunak berak etorri behar ote zuen, eta familia errugabe osoari erakutsi behar ote zitzaion arduradunaren jakinduriak soilik azter zezakeela susmo hura? Eta erabaki argi batek baino areago gogoeta haiek Gregorri sortutako aztoramenak bultzatuta, indar guztiarekin eraginda atera zen ohetik. Zartako baten hotsa egon zen, baina zarata handirik ez. Tapizak pitin bat leundu zuen errikoa, bizkarra ere Gregorrek uste baino malguagoa zen, eta burrundara ez zen hain nabarmena izan. Buruari ez zion arretaz eutsi, ordea, eta kolpea

hartu zuen; hura biratu eta tapizean igurtzi zuen, haserre eta minez.

–Zerbait jausi da hor barruan –esan zuen arduradunak ezkerreko gelan.

Gregor imajinatzen saiatu zen berari bezalako zerbait ezin ote zitzaion noizbait gertatu arduradunari; onartu beharra zegoen posible zela. Baina galdera haren erantzun gordin moduan eman zituen arduradunak pauso batzuk alboko gelan, bere txarolezko zapatekin intziri eginez. Eskuineko gelatik xuxurlatu zuen arrebak, Gregor jakinaren gainean jartzeko:

–Gregor, arduraduna hemen da.

“Badakit”, esan zuen Gregorrek berekiko, baina arrebak entzuteko adina ozen ausartu gabe.

–Gregor –esan zuen aitak ezkerreko gelatik–, arduraduna hemen da, goizeko tren zergatik ez duzun hartu galdezka. Ez dakigu zer esan behar diogun. Dena dela, zurekin hitz egin nahi du. Mesedez, ireki atea. Gelako narraskeria barkatuko du eta.

–Egun on, Samsa jauna –hots egin zuen arduradunak, amultsuki.

–Ondozik dago –esan zion amak arduradunari, aitak ate ondoan hizketan jarraitzen zuen

bitartean—. Ez dago ongi, sinetsidazu, arduradun jauna. Nola huts egingo du bada Gregorrek trenal Lana besterik ez dauka buruan. Erdi haserre nauka, inoiz ez delako gauzez irteten; zortzi egun darama hirian, baina etxean geratzen da gauero. Gurekin mahaian eseri eta egunkaria irakurtzen aritzen da, edo bidaien ordutegiak ikasten. Inguratzeko zerrarekin lanean entretenitzen da. Esate baterako, marko txiki bat egin du bizpahiru gautan; harrituko zara zein polita den; bere gelan dauka zintzilik; irekitzen duenean ikusiko duzu. Aizu eta, eskerrak etorri zaren, arduradun jauna; guk ezingo genion atea irekiarazi; egoskor hutsa da; eta inondik ere ondoezik dago, goizean ukatu badu ere.

—Banoa —esan zuen Gregorrek astiro eta pentsakor, zirkinik egin gabe, solasaldiaren hitzik ere ez galtzeko.

—Nik ere ez dut beste azalpenik, andrea —esan zuen arduradunak—, ez ahal da ezer larririk izango. Dena dela, negozioen munduan gabiltzanok (zorionez edo zoritxarrez, nahi duzun bezala) ondoez arinak gainditzen jakin behar dugu, negozioaren onerako.

—Arduradun jauna sar daiteke zuregana? —galdetu zuen aitak, luze iritzirik, berriro atea joz.

–Ez –esan zuen Gregorrek.

Ezkerreko gelan isilune desatsegin bat egon zen, eta eskuinekoan negarrez hasi zen arreba.

Arreba zergatik ez zen besteekin elkartu, ordea? Ohetik jaiki berritan, janzten hasi gabe egongo zen. Eta zergatik ari zen negarrez? Bera jaiki eta arduradunari sartzan utzi ez ziolako, lanpostua galtzeko arriskuan zegoelako, eta ugazabak berriro ekingo zuelako gurasoei lehengo eskakizunekin? Kezka horiek alferrikakoak ziren oraindik. Gregorrek bertan jarraitzen zuen, eta ez zuen bere familia abandonatzeko inongo asmorik. Orain behintzat tapizean etzanda zegoen, eta bere egoeraren berri zekien inork ez ziokeen eskatuko arduradunari sartzan uzteko. Baina ez zuten kaleratuko deskortesia txiki harengatik, aurkituko zuen aitzakia egokiren bat geroago. Eta Gregorri askoz zentzuzkoagoa irudituko zitzaiokeen bera bakean uztea, negarrez eta arrenka estutu gabe. Baina ez jakiteak larritzen zituen besteak, eta haien jarrera barkagarria zen.

–Samsa jauna –hots egin zuen arduradunak, ahotsa goratuta–, zer gertatzen da? Zure lubaki horretan sartu, bai eta ez hutsarekin erantzun, gurasoak alferrik kezkarazi eta, bidenabar esanda, zure

laneko eginbeharrak huts egiten ari zara, modu harri-  
garrian. Zure gurasoen eta zure ugazabaren ize-  
nean eskatzen dizut berehalako azalpen argi bat.  
Txundituta naukazu. Pertsona lasai, zentzuzkoa zi-  
nelakoan nengoen, eta orain berriz badirudi xe-  
brekeriatan hasi zarela bat-batean. Goizean uga-  
zabak azalpen bat eman dio zure hutsegiteari, zure  
esku utzi berri den kobrantzarekin lotua, baina  
azalpen hori ez dela egia zin egin diot kasik. Zure  
tema ulertezina ikusirik, baina, ez dut inolako go-  
gorik hitz-erdi bat ere zure alde egiteko. Eta zure  
posizioa ez da batere sendoa. Hau dena zuri pri-  
batuan esateko asmoa nuen, baina niri denbora al-  
ferrik galarazten ari zarenez, ez dakit zergatik ez  
duten jakin behar zure gurasoek ere. Zure azke-  
naldiko etekina oso eskasa izan da; ez gaude ne-  
gozio handiak egiteko urte-sasoian, aitortu beha-  
rra dugu; baina batere negoziarik ez egiteko  
urte-garairik ez dago, Samsa jauna, ezin da egon.

–Baina, jauna –hots egin zuen Gregorrek bere  
onetik aterata eta beste guztiaz ahazturik, asaldur-  
rarekin–, berehala irekiko dut, zaude. Jaiki ezinik  
utzi nau ondoez arin batek, zorabio batek. Orain-  
dik ohean nago. Baina orain jada oso ongi nago.  
Ohetik irteten ari naiz. Pazientzia apur bat! Ez da

uste nuen bezain erraza. Baina jada ondo nago. Honelako batek jotzea ere! Bart gauean primeran nengoen, gurasoek badakite, agian nik baino hobeto, baina irudipen txiki bat izan dut bart gauean. Nola ez ote didaten antzeman! Eta zergatik ez ote dut lantokira deitu? Gaixotasuna etxean geratu gabe gaindituko nuelakoan. Jauna, ez sufriarazi nire gurasoak! Ez duzu inongo arrazoirik niri horiek denak leporatzeko ere; inoiz ez didate horrelakorik ezer esan. Nonbait, ez dituzu irakurri nik bidalitako azken eskaerak. Zortzietako trena hartuko dut, bi orduko lasaitasun honek suspertu egin nau. Ez zaitetz zain egon, jauna; berehala naiz lantokian eta, mesedez, ugazabari hori esan eta goraintziak emazkiozu!

Eta Gregorrek hori dena jaulki bitartean, zer zioen ez zekiela, erraza egin zitzaion –ohean hainbeste praktikatu ondoren– komodara hurbiltzea, eta hari helduta zutitzeko lanean ari zen. Atea zabaldu nahi zuen, bere burua agertu eta arduradunarekin hitz egin; haiek bere itxura ikusita zer zioten jakiteko irrikaz zegoen. Beldurtzen baziren, Gregorrek ez zuen inongo erantzukizunik izango eta trankil egon ahalko zen. Baina dena lasai hartzen bazuten ere ez zuen zertan aztoraturik eta,

bizkor ibilita, geltokian egon zitekeen zortzieta-rako. Lehenbiziko ahaleginetan, komoda leunetik behera labaindu zen, baina azkenean bere buruari bultzada bat eman eta zutik geratu zen; ez zituen aintzat hartzen gorputzaren beheko aldeko oinaze latzak. Alboko besaulki baten bizkarraren kontra jaregin zuen bere burua, bere zangoekin haren ertzei eusten zuela. Hori eginda bere buruaren jabe izatea lortu eta isildu egin zen, arduradunak zer zioen entzuteko.

–Hitzik ulertu diozue? –galdetu zien arduradunak gurasoei–. Ez zaigu adarra jotzen ariko, ezta?

–Ai ene! –hots egin zuen amak, malkotan–. Agian larri gaixotuta dago, eta gu bera oinazetzen ari gara. Grete! Grete! –oihukatu zuen.

–Ama? –hots egin zuen arrebak beste aldetik. Gregorren gelan zehar ari ziren hizketan.

–Zoaz berehala medikuarengana. Gregor gaixo dago. Medikua, azkar! Entzun al diozu Gregorri hizketan?

–Animalia baten ahotsa izan da –esan zuen arduradunak, amaren garrasien aldean oso bare.

–Anna! Anna! –oihukatu zuen aitak sarreran barrena sukaldera, txalo eginez–. Ekarri sarrailagile bat berehala!

Eta bi neskek gonekin hots eginez sarreran lasterka joan –nola jantzi ote zen arreba hain azkar?–, eta indarrez zabaldu zuten etxeko atea. Ez zen ate-hotsik egon; nonbait, zabalik utzi zuten, zorigaizto handi bat gertatu den etxeetan ohikoa den moduan.

Gregor askoz lasaiago zegoen, baina. Hortaz, ez zioten esandakoa ulertzen, berak argi entzun arren, lehen baino argiago, agian belarriak ohitu zitzaizkiolako. Ohartu ziren, baina, guztiz ongi ez zegoela, eta laguntzeko prest zeuden. Lehenbiziko aginduen aurreko konfiantza eta ziurtasun hark on egin zion. Gizakien artera itzuli zela sentitu zuen, eta emaitza bikainak eta harri-garriak espero zituen medikuarengandik eta sarrailearengandik, nor bere aldetik, nahiz eta biak erabat bereizi ez. Hurrengo hizketaldi erabakigarrietarako ahalik eta ahotsik argiena edukitze aldera, eztarria garbitu zuen, baina motel, badaezpada soinu hark gizakiarena ematen ez bazuen ere, ez baitzen hori epaitzeko gai. Bitartean, ondoko gela isil-isilik zegoen. Agian gurasoak arduradunarekin eserita zeuden mahaian, txutxu-mutxuka, edo agian atearen kontra jarrita zeuden denak, entzuten.